

KONTSEJUTIK

Legazpiko Udal Buletina



2. ZENBAKIA
2008KO IRAILA

LEGAZPI SOSTENGARRIRANTZ III.EKINTZA PLANA



ELKARRIZKETA
Fernando Arakama
Udaleko kontu-hartzailea

HEZKUNTZA
Lokal berria
Haurreskolarentzat



| | |
|--------------------------------|-----------|
| Alkatearen sukaldetik | 2. orr. |
| Alderdi politikoak | 3-8. orr. |
| Agenda 21 | 9. orr. |
| Brinkolako Auzo Elkartea | 10. orr. |
| Azpiegiturak | 11. orr. |
| Hezkuntza eta Hirigintza | 12. orr. |
| Ondarea | 13. orr. |
| Laburrak | 14. orr. |
| Fernando Arakamarekin solasean | 15. orr. |
| Legazpi Bizi | 16. orr. |

Aurtengoa ez da nolanhiko urtea legazpiarrontzat, gure herriak ez baititu alferrik 400 urte bete Seguratik bereiztu zenetik. Iragan irailaren 12an izan zen IV. Mendurrena ospatzeko ekitaldi ofiziala. Hara joan zirenei eta, bide batez, legazpiar guztiei, nondik gatozen eta zer garen jakin behar dugula esan nien; baina, beti ere, etorkizunera begira egon behar garela.

Mendurrenako ospakizunak antolatzen aritu den taldeak gure iragana ezagutarazteko egin duen esfortzua eskertuta, udaleko ordezkariok aurrera begira lan egitea dagokigu. Hain zuzen, etorkizuneko Legazpi buruan, luze gabe, bi plan jarriko dira martxan: III. Ekintza Plana eta Mugikortasun Plan Iraunkorra. Horiek erakutsiko digute zein den guk nahi dugun Legazpirantz garamatzan bidea. Legazpi berde, garbi eta atseginerantz. Hori guztia lortzeko egin ahalak egiten ari gara udala osatzen dugun guztiok.

Legazpi askatasuna lortu zuen eguna bezain aspaldikoa da aipatutako helburuak lortzen lagunduko digun jarrera: auzo-lana. Mendetan zehar auzo-lanean erai ki eta txukundu ditugu herriak, eta guk ere, horri egin behar diogu kasu. Herritar bakoitzak ahal duen apurra jarriz eraikiko baitugu Legazpi berria ere.

Horregatik, alkate naizen aldetik, bilatzen dugun Legazpiren alde lan egitera animatzen zaituztet.

El 2008 no es un año cualquiera para los legazpiarras; no en vano, se cumplen cuatro siglos desde que nuestro pueblo se desanexionó de Segura. El pasado 12 de septiembre se celebró oficialmente el IV. Centenario. Me dirigí a los ahí presentes, y a su vez a todos los legazpiarras, diciendo que es vital saber de dónde venimos y quiénes somos; pero siempre, mirando al futuro.



Xotero Plazaola, Legazpiko alkatea

Sin menospreciar el esfuerzo hecho por las personas organizadoras de la celebración del aniversario, a nosotros, representantes del ayuntamiento, nos corresponde trabajar mirando adelante. Precisamente, con ese Legazpi del futuro en mente, se van a poner en marcha dos planes: el III. Plan de Acción y el Plan Sostenible de Movilidad. Esos planes son los que nos van a enseñar el camino que debemos recorrer hacia el Legazpi que deseamos. Hacia un Legazpi verde, limpio y agradable. Todos los que integramos el ayuntamiento estamos haciendo todo lo que está en nuestras manos para conseguir esa meta.

Tan antiguo como el día en que Legazpi consiguió su libertad, es la actitud que nos va a ayudar a lograr los objetivos mencionados: el trabajo comunal. Durante siglos hemos construido y arreglado los pueblos a base del trabajo comunal, y nosotros, tenemos que seguir esa tradición. Porque sólo mediante la aportación de cada uno de nosotros conseguiremos un nuevo Legazpi.

Por eso, y en calidad de alcalde, os animo a trabajar en favor de ese Legazpi que buscamos.

EZKER ABERTZALEA

ASKATASUNA, PARTE-HARTZEA ETA DEMOKRAZIA

Aurten 400 urte bete dira Seguratik askatu ginela eta urteurren honen inguruan antolatu diren ekitaldiak oso lotuta daude gure gobernu lanaren ideia nagusiarekin: herritarron partehartzea udalaren kudeaketa-ereduan.

Jende eta talde ugari aritu dira udalarekin batera elkarlanean, gure memoria historikoari astindu bat emanez. Mota guztietako pertsonak elkarlanean, mota guztietako ekitaldiak antolatzeko. Eta horrek barrena poztu digu. Hori delako herriari bizia emateko bidea.

En las celebraciones por los 400 años de la desanexión ha participado mucha y muy variada gente. Ésta es una muestra de cómo entendemos la gestión municipal: participación ciudadana, transparencia y democracia. La razón es muy simple: no queremos que los partidos políticos se adueñen del ayuntamiento y lo conviertan en una caja oscura, en la que nadie sabe lo que pasa, como ocurría hasta hace poco.

Al fin y al cabo la participación no es solo una cuestión de formas, una cuestión de apariencia democrática; es una cuestión de eficacia en la gestión municipal. Con participación se hacen más cosas y se hacen mejor.

Como la participación es nuestro camino, estamos orgullosos del éxito conseguido por el Plan de Movilidad. Un plan abierto, con amplia participación popular y un amplio consenso en su aprobación definitiva en el pleno del pasado julio.

Ahora nos toca poner en marcha los diferentes proyectos que se han diseñado en dicho plan, para poder lograr un pueblo mejor estructurado. Vamos a trabajar muy duro para conseguir un Legazpi más ecológico y ecologista; más abierto; socialmente más integrado y más integrador.

Eta parte-hartzea gure lanaren ardatz bihurtuta, herriaren funtzionamendurako ezinbesteko tresna den aurrekontuen gaia datorkigu. Horretarako ere, herritar guztien parte-hartzea bideratu nahi dugu, udal aurrekontu parte-hartzaileak egiteko. Diru kontuek transparentzia-ahalegin berezia eskatzen dutelako.

Orain arte, udaletxean, alor ezberdinetan antolatzen diren batzordeetan eztabaidatzen ziren aurrekontuak. Aurten, ahalegin hori auzotarrekin ere egin nahi dugu. Auzo bakoitzean dauden beharrak inork baino hobeto ezagutzen dituztelako bertako biztanleek. Eta hori izango da hurrengo asteetako gure lan ildoak: auzotarrekin eta udaleko batzordeetan aurrekontuen definizioa lantzea, jendeak berak markatzen dituen lehentasunetatik abiatuta. Horrela posible izango da Legazpik aurrera begira dituen erronkak gainditzea.

Es la hora de los presupuestos. Y ahí, además de con las diversas comisiones del ayuntamiento, vamos a requerir la participación de los vecinos, puesto que sois vosotros los que mejor conocéis las necesidades de cada barrio.

Los presupuestos municipales

participativos son un reto irrenunciable, del mismo modo que se hace en las democracias europeas más avanzadas. Unos presupuestos transparentes y organizados a partir de las prioridades definidas por los y las legazpiarras.

Porque para nosotros, la participación popular es más que un eslogan: es buena para la libertad y para la democracia, para una sociedad abierta, incluso para escuchar las críticas de los demás, porque eso nos hace mejores. Esta revista es un buen ejemplo de ello. Hay partidos políticos que hablan de participación pero no la practican: se prohíben consultas, se ilegalizan partidos, se ignoran las consultas cuyos resultados no les interesan (como es el caso del Tren de Alta Velocidad).

Y ante eso, desde la izquierda abertzale mantenemos que el derecho a decidir, la libertad de elección, es el único camino posible para la solución de los conflictos, sea cual sea la naturaleza de los mismos.

Kontsulta famatua ere hor dago: batzuk (PP eta PSOE) berau egitea ere galarazi dute, Espainiar estatua-aren izaera antidemokratikoa agerian utziz. Beste batzuk (PNV eta bere bazkideek), beraiek nahi dutena soilik galdetu nahi dute, bestelako ekitaldiak debekatuz (presoen aldeko manifestazioak, esate baterako) edo kasurik egin gabe (AHTren inguruko galdeketa, ziklo konbinatuaren ingurukoak eta abar). Horren aurrean, Ezker Abertzaletik, zera diogu garbi eta ozen: herriari hitza ematea da era guztietako arazoak konpontzeko bidea.



PILAK MARTXAN BERRIRO

Gobernu talde berria eratu zene-tik urte eta erdira goaz eta talde honen, Legazpiko etorkizuna epe ertain eta luzera perfilatuko luke ten egitasmu eta ekimen propio eta berririk gabe jarraitzen dugu. Orain arte, batez ere, aurreko legealdietan jaiotako egitasmoen jarraitpen logikoarekin jarraitu besterik ez dute egin. Gobernu taldetik egitasmu horiekiko funtsezko aldaketen proposamen ezak erraztu egin dugu gure taldeak oposizio konstruktiboa egiteko hartu zuen konpromezua betetzea, nahiz eta beste arlo askotan gure planteamenduak eta ikuspuntuak guztiz desberdinak izan.

A finales de junio se celebró por sorpresa en Urretxu el Pleno de la Mancomunidad convocado para la aprobación definitiva del presupuesto de la citada institución. La única reunión previa a dicha aprobación fue aquel día del mes de enero en el que se repartió el proyecto. No se convocó ninguna otra reunión previa para tratar sobre su contenido. Ante semejante "trágala" y sintiéndonos meros convidados de piedra, tanto los representantes de EAJ como los de EA tuvimos que optar por la abstención. El presupuesto fue aprobado por el resto de los corporativos entre los que es interesante destacar la feliz y sorprendente comunión entre los socialistas y los autoproclamados representantes de la izquierda abertzale para obtener la suficiente mayoría en dicha situación. Las cosas no siempre son como parecen.

Uztaila hasieran gobernu taldean eta bere inguruan Lenbur Fundazioaren hamargarren urteurrenaren ospakizunak sortu zituen ondoreza gogoratuko dugu. Ekitaldi horretan gure alkateak jaso zuen begirune eza

Noticias de Gipuzkoa egunkarian salatu zuen alkatearen inguru politiko-ko legazpiar batek. Bertan ere, ustez alkateari Lenbur Fundazioan zegoen ordezkari-tza lapurtzea leporatzen zien oposizio-ko taldeei.

La sorpresa en nuestro grupo fue mayúscula y sin entrar ahora en la idoneidad del lugar elegido para dicha efeméride, y sin valorar si dichas afirmaciones fueron fruto de la ignorancia o de una voluntad más retorcida, creemos que todos los legazpiarras han de hacer sus propias valoraciones sabiendo que al inicio de la legislatura la Fundación Lenbur ofreció su presidencia a nuestro actual alcalde, propuesta que, en su derecho, rechazó; así como que los representantes de la corporación en dicha fundación son designados por el pleno, como consecuencia del democrático juego de mayorías y minorías, como representantes de la corporación y no de los partidos políticos en los que militan. En fin, lo que a nuestro parecer, en realidad, subyace en todo lo relativo a Lenbur es que el actual equipo no comparte este proyecto y a las pancartas de la campaña municipal nos remitimos como muestra gráfica de esta afirmación.

Inazio Deunaren eguna Musika Eskolako Zuzendariari herriko kronikan egindako elkarrizketarekin argitu zen. Laburki, aipatutako

La Fundación Lenbur ofreció su presidencia a nuestro actual alcalde, propuesta que, en su derecho, rechazó

eskolak dituen leku arazo larriak direla eta Agirre-Etxeberri Etxea eskatzen zuten Musika Eskolarako. Esan, arazo eta interes hau, uztailak 17an deituak izan ginen bileran jakinarazi zigutela Musika Eskolako ordezkari-ek.

A este respecto nos consta que esta posterior solicitud pública fue alentada por nuestro alcalde a sabiendas de las profundas discrepancias que sobre su destino tenemos los diferentes grupos que conformamos la corporación. Extraño concepto de colaboración y consenso previo el que tiene y tantas veces reivindica nuestro alcalde! He aquí una muestra de su, por él mismo reconocida, política populista! El alcalde sabe bien que el uso de dicha casa está comprometido en el correspondiente convenio de cesión firmado con los actuales propietarios. A este respecto nuestra postura es clara y así lo manifestamos a la eskola en la reunión del día 17: 1) Existe un convenio firmado en el que se determina el destino de dicho edificio y como tal ha de ser respetado salvo que las partes acuerden su modificación; 2) Seguimos considerando el Palacio Bikuña como sede idónea para Musika Eskola; 3) Creemos que la solución urgente e inmediata a los problemas de espacio con los que Musika Eskola se enfrenta al inicio del curso pasa por compartir con buena voluntad y de forma temporal y transitoria, el uso de locales municipales, y la competencia para que esta urgencia se solucione la tiene el alcalde.

Bukatze-ko, Agirre-Etxeberri etxean kokapen adostua duen Legazpi Bai egitasmu-ari buruzko azken puntu bat: gure taldeak, egitasmu honetan sinistu eta lanean diharduten legazpiarrekin batera, bere osotasunean martxan jartzeko lanean jarraituko dugu.

Hurrengoan gehiago.



UDALETXEAN DEMOKRAZIARIK EZ

Legazpiko alkateak hartutako erabakien informazio ezak, herriko ordezkariaren gehien-goia dugun oposizio taldeekiko errespetu falta eta prozedura demokratiko ezaren adierazle nabarmena da.

Egiten diren obrak, emandako hainbat lizentzi, Urtatza zaharpeko planaren haserako onarpena eta beste hainbat erabakien aurrean, Legazpiko Eusko Alkartasuna Udalaren norabide aldaketa gauzatzaren biziki saiatuko da.

Ayuntamiento = democracia cero

La falta de información a los grupos políticos de las decisiones adoptadas por el Sr. Alcalde de Legazpi deja de manifiesto la falta de respeto y procedimiento democrático respecto a los partidos políticos de la oposición (que representan a una mayoría abrumadora de la población legazpiarra).

Y, como muestra, vamos a comentar algunas de las situaciones vividas en la comisión de urbanismo:

- Para conocer las obras que se realizan, tenemos que esperar a la lectura del Boletín Oficial de Gipuzkoa, o los decretos que se adjuntan a la convocatoria de pleno, sin que sean tratados por la comisión de urbanismo, antes de la exposición pública correspondiente.

- Se han dado dos licencias de bordas en el monte sin cumplir con la tramitación establecida en los informes del arquitecto y el secretario municipal y sin informar a la comisión de urbanismo. Estamos todavía a la espera de información.

- El día 28 de agosto se publicó tanto en la prensa como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la aprobación inicial del plan parcial de la AU 40 Urtatza Zaharpe, estableciéndose un plazo de 20 días para la exposición pública, siendo evidente que se busca aprovechar la época vacacional para su tramitación, con todo lo que ello supone. ¡Y nosotros diciendo en el primer número de este boletín que la disparidad de criterios será enriquecedora si estamos dispuestos a dar la oportunidad de manifestarla y respetarla!

- Con relación al plan de movilidad, es evidente que las alegaciones presentadas han servido para concretar y mejorar notablemente este plan, que ya ha sido aprobado definitivamente por la Corporación legazpiarra. Curiosamente, un repre-

Se han dado dos licencias de bordas en el monte sin cumplir con la tramitación establecida

Con relación al plan de movilidad, es evidente que las alegaciones presentadas han servido para concretar y mejorar notablemente este plan

sentante del mismo grupo del que forman parte el Alcalde y sus dos Tenientes de alcalde, presentó una serie de alegaciones que desvirtuaban completamente el plan que decían promover, pero afortunadamente fueron desestimadas y el plan de movilidad es ya una realidad que sigue su curso y cuyas prioridades deberemos de concretar en la aprobación de los presupuestos anuales del Ayuntamiento.

No vamos a entrar en otra serie de temas que fuera del ámbito del urbanismo refuerzan el argumento de la falta de consideración y cauces de participación en nuestro Ayuntamiento: La decisión unilateral de no solicitar ayudas para la elaboración de un plan estratégico, el procedimiento utilizado para la adjudicación del bar del hogar del jubilado con el resultado por todos conocido, la firma de un convenio con Kontseilua que no ha pasado por ninguna comisión informativa o la forma de elaboración de este boletín (que todavía no hemos tenido oportunidad de valorar) son indicadores evidentes del talante del grupo que en absoluta minoría y de forma unilateral gobierna el municipio.

Creemos que esta situación no se puede mantener durante los tres años que restan. El pueblo de Legazpi no se merece esto. Eusko Alkartasuna de Legazpi hará todo lo que esté en su mano con el resto de partidos que ejercen la oposición, para poder asegurar un cambio de rumbo y devolver al Gobierno municipal los indicadores de participación que incluyeron Legazpi en un manual de buenas prácticas, a nivel europeo, en anteriores legislaturas.



EZKER BATUA

ADELANTE

Se ha producido un relevo en la gestión municipal y el pueblo sigue adelante, sin devenir la hecatombe que algunos en su inasimilada derrota predijeron. Eso sí, para sacar las cosas -como quiso la ciudadanía legazpiarra- hacen falta más diálogo, debate y consenso.

Adelante a razonable ritmo. Ya se ejecuta el Plan General cuyas primeras muestras ya se ven en el paisaje urbano. El Plan de Movilidad no está recibiendo más que parabienes, y ahora todos se suman al carro (cosa que en sí nos parece bien) y hasta se llegó a decir que el Plan de Movilidad era de la anterior legislatura...

Gracias a una iniciativa de Ezker Batua- Berdeak, la Corporación aprobó una moción contra la Di-

Ez da zenbaitek onartu gabeko porrotean iragarri zuten hondamendia gertatu. Egia esan, udal-kudeaketan aldatetak egon dira, eta herriak aurrera jarraitzen du. Dena dela, legazpiarrek nahi izan zuten bezala, elkarrizketa, eztabaida eta adostasun handiagoak garatu behar dira gauzak aurrera eramateko.

Zentzuzko erritmoan jarraitzen du aurrera. Plan nagusia jarri da abian, eta lehen ondorioak antzematen dira hiriko paisaian. Mugikortasun Planak onarpen itzela izan duenez, guzti-guztiak igo dira gurdira (berez, ez zaigu gaizki iruditzen). Gainera, Mugikortasun Plana aurreko legealdian sortua zela esan zen...

Ezker Batua Berdeak-en ekimenari esker, korporazioak zuzentaraua-

rectiva de la Vergüenza. Porque vergüenza tiene que dar poder detener a una persona hasta 18 meses sólo por el mero hecho de ser inmigrante. Algunos pretendieron defender la Directiva diciendo que había que "uniformizar" las legislaciones de los estados de la UE. ¿Es que no se puede uniformizar a través de una legislación respetuosa con los derechos humanos? Que esa Directiva es racista y xenófoba lo ha dicho hasta el relator de Naciones Unidas.

Herrigintza S.A. estaba obligada a emitir una factura por el coste de construcción del frontón. Eso suponía pagar unos quinientos mil euros a Hacienda en concepto de IVA. Como no tenía dinero pues las ventas no se habían cumplido ¿qué hicieron? Pues decidieron NO emitir la factura y asunto arreglado. O sea,

ren aurkako mozioa onartu zuen. Izan ere, lotsagarria da benetan pertsona bat 18 hilabetez atxilotuta eduki ahal izatea, etorkina izateagatik. Batzuek zuzentaraua defendatu zuten, Europar Batasuneko estatuetako legeriak "berdinduko" zitu-elakoan. Ez al dago giza eskubideak errespetatzen dituen legeriaren bidez berdintzerik? Nazio Batuetako errelatoreak berak ere zuzentarau arrazista eta xenofobia dela esan du.

Herrigintza S.A. enpresak pilotalekua eraikitzeagatik faktura jaulki behar zuen, baina hori eginez gero, bostehun mila euro inguruko BEZa ordaindu behar zion ogasunari. Salmenta-aurreikuspenak ez betetzear, dirurik ez zuenez, zer egin zuen? Ba, faktura EZ jaulki eta kito. Horra hor arazoaren muina. Beraz,

defraudar. Ese es el meollo del asunto y nada tiene que ver ni con el inventario municipal, ni con el Registro de la Propiedad ni con temas personales que, a falta de argumentos para justificar lo injustificable, se emiten con el fin de desviar la atención. Pero el asunto está ahí y ahora es esta Corporación actual la que sufre las consecuencias. Podrán sentirse orgullosos pero en gestión pública tan importante como lo que se hace es cómo se hace. Y como eso lo ha hecho una sociedad pública que se supone que tiene que dar ejemplo a la ciudadanía, Ezker Batua-Berdeak considera que el tema es grave y lo comunicará al Tribunal de Cuentas y actuará en función de lo que éste dictamine.

A pesar de los problemas seguimos adelante, tratando de hacer de Legazpi un pueblo mejor. Como se dice en el anuncio por los sueños que están por venir.

Pues eso, adelante...

ez du inolako zerikusirik ez inbentarioarekin, ez ondarearekin, ez Jabetza Erregistroarekin, ezta gai pertsonalekin ere. Hain zuzen, justifikatzerik ez dagoena justifikatzeko argudiorik ez duenez, halakoak esaten dira arreta desbideratzeko. Hala ere, arazoa hortxe dago, eta egungo korporazioak aurre egin behar die ondorioei. Hori guztia herritarrentzat eredu izan behar den sozietate publikoak egin duenez, Ezker Batua Berdeak-en iritziz, oso gai larria da. Hori dela-eta, Kontu Auzitegiari emango dio gertatutakoaren berri, eta auzitegiak ebatzitakoaren arabera jokatu du.

Arazoak arazo, aurrera goaz, Legazpi are herri hobea izan dadin. Iragarkian esaten den bezala, etorkizuneko ametsen alde. Horixe, ba, aurrera...



PARTIDO SOCIALISTA

UN PLENO DE TRISTE MEMORIA

No es agradable escribir sobre esta cuestión; sin embargo en honor a la transparencia que debemos a los ciudadanos, nos sentimos en la obligación de informar sobre un asunto tan polémico.

ETA sigue asesinando, extorsionando y persiguiendo a la mitad de la población vasca, sobre todo a sus representantes democráticos. Sin embargo, ello no ha sido obstáculo para que los grupos políticos PNV, EA y EB junto a los tres concejales no adscritos, votaran a favor de una ordenanza para subvencionar los viajes de las familias de los presos, esto es, con dinero de todos. Fue en el pleno ordinario celebrado el pasado 25 de junio.

Al hilo de dicho acuerdo, el grupo socialista quiere compartir con los vecinos de Legazpi las siguientes reflexiones:

- Con dinero de todos los contribuyentes y, por supuesto, también de las víctimas, el Ayuntamiento de Legazpi financia los viajes de los familiares de los presos de ETA.

- ¿Cuántos familiares han condenado públicamente la violencia etarra? ¿Cuántos de estos familiares se han distinguido por apoyar públicamente a las víctimas de ETA, solidarizándose con ellas?

- ¿Dónde está la sensibilidad de los concejales del PNV, EA y EB? ¿Son conscientes del dolor y la afrenta que supondrá para las víctimas la aplicación de esta ordenanza? Subvencionar los viajes de ese colectivo, es una forma indirecta de financiar a una parte de la sociedad vasca que no está por la normalización

Se aprobó una ordenanza para subvencionar los viajes de las familias de los presos

Demolida la 'Casa de la República'

política, ni la libertad de tantos ciudadanos vascos. Es un menosprecio al dolor de las víctimas.

- Aprobar una ordenanza como ésta, es otorgar un premio con dinero de todos, a quienes, expresa o tácitamente, apoyan la violencia política.

Señores concejales nacionalistas, miren el sufrimiento de tantas víctimas, tengan en cuenta su dolor y no sigáis contribuyendo con vuestro voto a su menosprecio. ¡Derogar la ordenanza!

En los primeros días de agosto saltó la noticia de que se habían demolido dos edificios de viviendas en la kale Nagusia de Legazpi.

La importancia de la noticia estriba en que uno de los edificios demolidos era el único vestigio que quedaba en Legazpi de la arquitectura de la República.

Quizás para la inmensa mayoría de los legazpiarras, este hecho carezca de importancia; sin embargo mantener la memoria viva de una época histórica tan trascendental, a través de edificios emblemáticos, es algo que las instituciones públicas deben cuidar con esmero y cariño.

Queremos creer que el ayuntamiento estaba al tanto de los hechos. Es decir, que dio licencia para el derribo. Que no lo evitó, suponemos, porque en opinión del alcalde, no tenía valor arquitectónico (esperamos explicaciones). Porque, valor arquitectónico, como para estar catalogado como bien patrimonial, quizás no. Sin embargo el bien sentimental e histórico, era evidente.

ZINEGOTZI INDEPENDIENTEA

ANA SALINERO MAESTRE

ACLARACIONES DE LA CONCEJAL NO ADSCRITA

En primer lugar, queremos agradecer a aquellas personas que han confiado en nosotros, aun y cuando la concejal Ana Salinero Maestre abandonó el grupo político EB-Berdeak por grandes desavenencias e incompatibilidades con el concejal de dicho grupo y la directiva de Gipuzkoa.

Ahora estoy ejerciendo como concejal no adscrita, para poder aportar mi grano de arena para el bien de este Legazpi.

Como es bien sabido, fui la presidenta de la Comisión de Servicios Sociales, hasta que el alcalde me cesó del cargo por Decreto de Alcaldía, alegando mentiras; si no, ya hubiese contestado al porqué me cesó.

También quiero hacer constar una cosa, que el equipo de gobierno del ayuntamiento de Legazpi no se eche flores de si han hecho o han dejado de hacer, ya que todo lo aprobado proviene de la legislatura anterior, me refiero al PGOU (Plan General de Ordenación Urbanística) y el Plan de Movilidad.

Pero en esta ocasión quiero hacer hincapié en dos temas de servicios sociales que verdaderamente me preocupan.

El primero alude a las ayudas económicas para el traslado a centros penitenciarios de familiares de presos. ¿Cómo un ayuntamiento puede estar financiando estas ayudas con dinero de los contri-

buyentes de Legazpi? Cuando por todos es sabido que la banda terrorista ETA sigue asesinando, amenazando y extorsionando. Es algo inexplicable, y da coraje tener esa ordenanza recogida aquí, ya que no es más que una burla hacia las víctimas del terrorismo.

El segundo de los temas es sobre las subvenciones a las asociaciones. En Legazpi tenemos una gran asociación, Iratzarri, quien con las nuevas bases que han expuesto se queda fuera de cualquier ayuda económica por parte del ayuntamiento. Por ello, quiero pedir a todos los grupos que formamos la corporación municipal de Legazpi, que apoyen a esta asociación, que tantos años lleva luchando, desde aquí os mando todo mi apoyo y mi ayuda. Y espero que sigáis luchando como lo estáis haciendo.

En lo que respecta al Plan de Movilidad, me abstuve porque me parece una barbarie poner cinco ascensores en Legazpi, por el impacto ocular y medioambiental terrible que va a suponer, y aún así, no veo claro los pasos del plan.

Y para finalizar quiero pedir al equipo de gobierno del ayuntamiento que se ponga las pilas y nos dé más información a los demás concejales, que haya actas en tiempo y forma, ya que en algunas comisiones informativas se han saltado la norma a la torera.

Hasta la próxima.

Ayudas económicas para el traslado a centros penitenciarios de familiares de presos

En Legazpi tenemos una gran asociación, Iratzarri, quien con las nuevas bases que han expuesto se queda fuera de cualquier ayuda económica por parte del ayuntamiento

Quiero pedir al equipo de gobierno del ayuntamiento que se ponga las pilas y nos dé más información a los demás concejales, que haya actas en tiempo y forma



URRIAN ONARTUKO DA III. EKINTZA PLANA

Herritarrek nahi duten Legazpitik abiatuta diseinatu dute plan osoa



Erreka egunean bildutako zabor guztia plazan erakusten dute ARG: I.HERNÁNDEZ

Urriari onartuko da Legazpirako III. Ekintza Plana. Aurrekoa 2005ekoa izan zen eta, hain zuzen, plan hartako emaitza eta ebaluazioetatik abiatuta sortu da oraingo hau.

Zein da legazpiarrok nahi dugun Legazpi? Hori izan da planaren abiapuntua eta erantzuna aurkitzeko bi urteko hausnarketa behar izan da. Denbora horretan hiru esparru landu dituzte: jasangarritasuna ingurugiroan, ekonomian eta gizartean. Izan ere, jasangarritasuna ez dago ingurugiroari bakarrik; aipatutako hiru esparru horien arteko orekari baizik.

Hausnarketa hori Legazpiko alor ezberdinetako parte-hartzearekin egin da: Agenda 21eko foroa; udalean ordezkariak duten alderdi politikoetako ordezkariak; udal departamentuetako langileak (Alkatetza, Hirigintza, Kultura, Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Nekazaritza,

Kontu Hartzailtza,...), eta udalaz gaindiko erakundeak (Lenbur, Ugasa, Sasieta, Ugisa, Gipuzkoako Ur Partzuergoa...). Parte-hartze hori funtsezkoa izan da planaren estrategiak zehaztu eta ekintzak proposatzeko.

Estrategietan islatzen diren kontzeptu gehienak orain arte Legazpiko Agenda 21ek esku artean izan dituenak dira, planteamendu eta antolaketa berriarekin. Baina, aipatzekoak dira, lehendabiziko aldiz Ekintza Plan batean agertu diren helburuak, hala nola, klimaren babesa, zentzuzko kontsumoa eta produkzioa, eta legazpiar identitatea.

Dagoeneko egin dira ekintza batzuk

Datorren hilabetean onartuko da plana, baina dagoeneko burutu dira plan horretan aurreikusten diren ekintza batzuk, 2008koak.

8 ESTRATEGIAS PARA EL III. PLAN DE ACCIÓN LOCAL

1. Preservar y revitalizar el medio natural y la biodiversidad.
2. Implementar estrategias para la protección del clima, promoviendo modelos de movilidad sostenibles y favoreciendo un consumo racional de la energía.
3. Fomentar el consumo y la producción responsables.
4. Apostar por un urbanismo armónico.
5. Desarrollar la identidad legazpiarra e implicar a la ciudadanía en la participación y educación en valores.
6. Favorecer la calidad de vida y la justicia social.
7. Propiciar una economía local viva que promueva el empleo sin dañar el medio ambiente.
8. Impulsar programas eficaces de gestión municipal hacia la sostenibilidad.

Kasu batzuetan, urtero egin ohi diren ekintzak planean integratu dituzte, interesgarriak direlako. Baina ekintza gehienak lehendabizikoz egingo dira Legazpin. Esaterako, eskualdeko enpresetan, energiaren erabilera zentzuzkoa eta ingurugiro kudeaketa aztertze eta hobetzeko plan batean ari dira lanean. Bestalde, laster GAP programa jarriko da martxan, familietan energia aurrezteko lana, eta trafiko mailako aldaketa batzuk egingo dituzte bidegorria jartzeko.

Horretaz gain, berriki egin den Erreka Eguna Ekintza Planaren barruan dago. G Mugikortasun Iraunkorreko plana, Aste Berdea, Tren-Bizikleta eguna eta Mugikortasunaren astea ere kontenplaten ditu plan berriak.

BRINKOLAKO AUZO ELKARTEAK LOKAL BERRIA DAUKA AUZO LANARI ESKER

Auzoa txukuntzea eta frontoia eraikitzea dira auzotarren eskakizun nagusiak.

Brinkolako Auzo Elkarteak lokal berria dauka joan den abuztua ezker. Aspaldian zuten biltoki gisa erabiltzeko leku batean beharra. Azkenik, Renfek lokal bat utzi zion Lenbur Fundazioari, eta azken horrek, auzo elkarteari. Lokala, ordea, zahartuta zegoen eta berritze lanak behar zituen. Udalak, berritze lanak auzo-lanean egiten bazituzten, materiala berak jarriko zuela hitz eman zien. Eta hala izan da.

Auzo Elkartekoek deialdia egin zuten abuztuan zehar lokalean lanak egiteko, eta erantzuna berehalakoa izan zen. Abuztuko 12 egunetan 13 bat lagun aritu dira lanean lokala egokitzen.

Hasteko, elkartearen biltoki izan-go da lokal berria, baina, behar izanez gero, ekintzak bertan antolatu

El material para la obra lo puso el ayuntamiento, pero el trabajo lo hicieron los vecinos de Brinkola

ahal izango direla dio Joakin Balerdi elkarteko kideak. Izan ere, orain arte, euria egiten zuenean ekintzak bertan behera utzi behar izaten zizuten aterpe faltagatik. Hala ere, orain arte bezala, elkarteko bilerak Arriurdin aretoan egingo dituzte.

Konponketa txikiekin ez da nahikoa auzotarren ustez

Brinkolan frontoia eraikitzeko eskakizuna 1987tik dator, garai hartako alkateak eraikiko zuela hitz eman zuenetik. Baina, auzotarrek ez dute oraindik frontoiaren arrastorik. «Orain beste norma batzuk daude eta nahiko zaila ikusten dugu frontoia egitea» dio Joakin Balerdik.

Brinkola ez da behar adina zaintzen. Horixe da auzotarren kexa nagusia gaur egun. Noizean behin konponketa txiki batzuk egin bai, baina ez dituztela arazoak errotik moztzen diote. Gaizki konpontzen diren gauzak, azkar hondatzen direlako berriro. Brinkolako zubi txikia, horren adibide. Gainera, Auzo Elkartekoek diote, Brinkolakoek eza gutzen dutela auzoa hobekien eta beraiek dakitela zer konpondu beharko litzatekeen. Horregatik, konponbidea udala eta auzotarren arteko lankidetzaren dela diote.

Geroz eta jende gehiago gerturatzeko omen da Brinkolara eta, kanpokoek auzoa txukun ikustea nahi dute. Adibidez, aspaldi bota behar omen zituzten egoera txarrean dauden tailer zahar batzuk, baina hor daude oraindik. Hain zuzen ere, halako gauzak dira Brinkolako Auzo Elkartekoek ekidin nahi dituztenak.

Aurreko legegintzalditik gauzak piskat aldatu direla dio Balerdik, baina aipatutako norabidean lan handiagoa egin behar dela.



Auzo Elkarteko biltoki gisa erabiliko dute lokala.

ARG: JOSU ALZELAI

ARGIXAO ETA KAMINPE ARTEKO LANAK AURTEN BUKATZEA AURREIKUSTEN DA

Autobiaren zati hori egitean zuzenagoa izango da Legazpirako sarrera

Beasain-Bergara autobiaiko Argixaotik Kaminpera doan zatia aurtan bukatzea aurreikusten du Foru Aldundiak. Zati hori, Zumarraga-Urretxu arteko fasearen barruan sartzen da.

Zumarraga-Urretxu errepidea ez da Legazpiraino iritsiko, baina neurri txiki batean bakarrik bada ere, herriko lurretan sartuko da, Argixao eta Kaminpe bitarte horretan, hain zuzen ere.

Zumarraga eta Urretxu bitarteko errepideak bi kilometro eskas izango ditu, eta metro batzuk lurrazpi-

tik joango dira. Argixaon egiten ari diren tunelean hasiko da bidea. Tunel hori Zumarragako ospitaleen azpitik pasako da eta errepidea bitartara atera ondoren Kaminperaino iritsiko da. Duela gutxi arte, Etxetxo baserria zegoen hor eta, lan hauek egiteko bota zuten.

N1etik Kaminpera zuzenean

Autobia berriaren Zumarraga-Urretxu zatiak onura ugari ekarriko dio eskualdeari; baina, batez ere, bat da Legazpik izango duen abantaila. N1 errepidetik datozenek sarrera zuzenagoa izango dute

herrira, zuzenean aterako baitira Bergarako bidegurutzera, Kaminpera, alegia. Aldaketa horrekin lauzpabost minutu aurreztu ahal izango dira. Izan ere, gaur egun, Zumarragatik igaro eta bertako semaforoak pasa behar baitira.

Zumarraga-Urretxu fasean dabil-tza lanean gaur egun eta Urretxu-Bergara izango da hurrena. Azken fase horren barruan, Deskargan tunel bat egitea dago aurreikusita, baina lan horiek hasteko data oraindik behin-behinekoa da. Hori egiten dutenean egun Deskargako mendatean egon ohi den trafikoa nabarmen gutxituko da. Bestalde, lan horiek bukatzen dituztenean Beasain eta Bergara arteko distantzia ordu laurdenean egin ahal izango da.

EL PROYECTO DEL BIDEGORRI ZUMARRAGA-BRINKOLA YA ESTÁ EN MARCHA

El Ayuntamiento de Legazpi y la Diputación Foral de Gipuzkoa están detallando el proyecto del bidegorri que irá de Zumarraga a Brinkola. Es demasiado pronto para establecer la fecha de inicio de las obras, pero ya está decidido cuál va a ser el recorrido. Empezará en Zumarraga y pasará por Urretxu, Legazpi, Mirandaola y Brinkola sucesivamente. El ayuntamiento financiará el tramo que pasa por el casco urbano de Legazpi, y los interurbanos los pagará la Diputación. El trayecto que pasa por Legazpi es uno de los proyectos previstos en el Plan de Movilidad.



Kaminpe edo Mendaras auzoan egiten ari diren lanak

ARG: JOSU ALZELAI

HEZKUNTZA

HAURRESKOLAK LOKAL BERRIA IZANGO DU ITXAROPEN AUZOAN, SAN JUANGOAZ GAIN

Partzuergoko arauetara egokitzeko lanak aurten hasiko dira eta otsailerako irekita egotea aurreikusten da

Legazpiko Haurreskolak beste lokal bat edukiko du, Itxaropen auzoan, otsailetik aurrera.

Azken denboraldian Haurreskolan zegoen leku faltaren arazoari aurre egiteko, udalak lokal berria jarri du Itxaropen auzoan, San Juanen dagoena bere horretan mantenduta.

Proiektua aurkeztuta, onarpenerako lehendabiziko pausuak eman dituzte eta lanak esleitzea izango da hurrengo urratsa. Aldaketa asko egin behar dira, ez lekua berritzeko bakarrik, baita Partzuergoak jartzen dituen arauetara egokitzeko ere.

250 m2 ditu lokal berriak. Bertan bi gela, balio anitzeko gela bat, komunak, bulegoa, begiraleentzako aldagela eta jangela egongo dira.



Haurreskolaren lokal berria

Horretaz guztiaz gain, asko dira bete beharreko baldintzak eta horrek zaildu egin du diseinua. Esate baterako, ikasgela bakoitzean haurrak garbitu eta arropa aldatzeko gunea dago, baina hori begiraleak gela guztia ikusteko moduan egon behar da kokatua, haurrak etengabe begibistan izateko. Bestalde, lo egiteko gunek kristalezko kutxa batekin egon behar dira babestuta, haurren loaldia bermatzeko. Gainera, lokalaz gain, 70m2 ko lorategia egongo da lokalaren parean, Partzuergoak exijitzen dituen arauetara egokituta hori ere.

HIRIGINTZA

ESARBE SERÁ LA ENCARGADA DE GESTIONAR HERRIGINTZA

Si todo va bien, empezarán a trabajar en el primer proyecto en septiembre

La empresa Esarbe será la encargada de gestionar Herrigintza. Esarbe fue la mejor valorada en el concurso abierto en junio para contratar una empresa que gestionará Herrigintza.

Hasta hace poco esa labor la llevaba a cabo el propio ayuntamiento. El objetivo del cambio es conseguir una mayor transparencia. De todas

maneras, y aunque jurídicamente el ayuntamiento y Herrigintza son dos personas diferentes, en cierta manera, seguirán ligados ya que el capital lo pondrá el ayuntamiento. De hecho, la Junta General la compondrán los 13 ediles, y el Consejo de Administración cinco concejales nombrados por el pleno.

Actualmente la empresa Esarbe está en proceso de inmersión en

Herrigintza: analizando los estatutos, revisando las cuentas, estudiando su composición, etc.

A continuación, este mismo mes, comenzarán con los primeros pasos del proyecto que les ha atribuido el ayuntamiento: la construcción de 74 casas en Brinkola y Pixuzar (viviendas libres, tasadas y de protección oficial). Aunque este proyecto está aprobado en el Plan General, todavía hay que llevar a cabo unos trámites que el ayuntamiento deberá aprobar antes.

Eсарbe ofrece una gestión multidisciplinar. En los proyectos que le encargue el ayuntamiento, ellos se ocuparán de hacer los diferentes tipos de planes, proyectos urbanísticos, reparcelaciones, contrataciones etc.



Arrobi saila Oamendin dago, Zerain eta Zegamarekin mugan.

J. L. UGARTE

ARROBI, HERRIKO ABEREEN LARREA

Herri Onurako saila da Arrobi; egun, 60 bat hektarea egokitzen ari dira

Herriko abeltzainek bai, baina, akaso horietatik aparte, gutxi jakingo dute Arrobi mendia Herri Onurako sail dela. Horrek zera esan nahi du, Legazpiko abeltzainek euren abereak sail horretan sar ditzaketela hango larretan bazka daitezten.

Gipuzkoa mailan badira kategoria hori duten sail gehiago, urruti joan gabe Zerainen bada halakorik. Baina Arrobikoa Legazpin dagoen Herri Onurako sail bakarra da. Egundik, 15 bat abeltzainek dituzte euren abereak bertan. Guztira, 30 behi, 72 zaldi eta 392 ardi bazkatzen dira Arrobi sailean.

2002an, herriko 16 abeltzainek, Arrobi, Legazpiko Abeltzainen Elkartea, sortu zuten. Abereak sartzeko larre falta zen euren arazo handiena. Horregatik, Arrobi mendiko larreak aprobetxatzea izan zen elkartearen lehen egitekoa. Hala, Abeltzainen Elkartea, Legazpiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia adostasun batera iritsi ziren:

Arrobi mendiko 32,5 hektarea larre bihurtuko zituzten, abeltzainek ustia zitzaten. Horretarako, hor zeuden pinu gorriak bota egin zituzten.

Lehen, udalaren esku zegoen Arrobiko larrearen zaintza, baina Herri Onurako sail denetik, Foru Aldundiak darama eta berak egiten ditu sailean egin behar izaten diren hobetze lanak.

Egun, Herri Onurako bi sail daude Arrobin

Egun, 35,5 hektareako sail horrez gain, beste handiago bat ere bada-

Se está adecuando otra parcela de 60 hectáreas

Hoy día, 494 animales pastan en el monte Arrobi

go, 60 hektarea dituena. Sail horretan egokitze lanetan ari dira: larre garbitzeko, pinuak bota eta entresak egin dituzte. Bestalde, behorak harrapatzeko manga egiten eta saila inguratzen duen itsitura jartzen ari dira.

Sail txikia ardi eta behientzat erabiliko dute, belardia bakarrik delako eta. Sail handian, berriz, behorak sartuko dituzte, azken hauek zuhaitz artean hazten den belarra jateko gai baitira.

Goimen Elkaratek bideratzen ditu abeltzainen diru-laguntzak

Goimen Goierri mailako elkartea da, eta bera arduratzen da abeltzaintzako diru-laguntzak bideratzeaz. Diru laguntza horiek Foru Aldundiak eta Udalek ematen dituzte. Foru Aldundiak abeltzainei euren baserrietan lanak egiteko diru-laguntzak ematen dizkie. Udalak berriz, Legazpikoak kasu honetan, behar orokorragoetarako bideratzen ditu diru-laguntzak. Esaterako, baserrietarako seinalizazioak jartzeari izan da udalak egin duen lanetako bat. Halako lanetarako, Legazpiko Udalak urtero bideratzen du aurrekontuetako zati bat.



ARG: JOSÉ VENEGAS

El día oficial de la desanexión, da paso a más actividades

Durante todo este año se han celebrado diversos actos y actividades en conmemoración del IV. Centenario de la desanexión de Legazpi. El último de ellos fue el acto institucional del pasado 12 de septiembre al cual asistieron autoridades de la comarca y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Ahí el alcalde de Legazpi hizo entrega de un presente a los asistentes. Asimismo, los alumnos de la escuela pública Domingo Agirre representaron el día de la desanexión de Legazpi. Además, se inauguró la exposición "Legazpi 400 urtez aske" que estará abierta hasta el 10 de octubre en la Casa de Cultura, todos los días de 17:30 a 20:30.

Por otro lado, próximamente, el 4 de octubre diferentes grupos del pueblo (el coro, la banda de música, bertsolaris, dantzaris...) ofrecerán un espectáculo para conmemorar el centenario. Además, el 12 de octubre habrá una marcha montañera al parque natural de Aizkorri, y el 30 del mismo mes se presentará el segundo tomo del libro "Norteko trenbidearen eraikuntza", a las 19:00 en Brinkola.

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Zingi Zangoren kanpainarako

Irailaren 4ean aurkeztu eta 10ean jarri zen abian Legazpiko Zingi Zango Euskara Elkartearen kanpaina *Legazpin euskarak herdoilik ez!* lelopean.

Kanpainaren aurkezpen ekitaldian Legazpiko euskararen azken 100 urteetako historia laburbiltzen duen dokumentala eman zuten. Bertan, herritarren gai desberdinei buruzko testigantzak jaso dituzte: ikastolaren sorrera, antzerkigintza eta bertsogintza herrian, gau-eskola martxan egon zeneko garaia, eta herrian egon diren aldizkariak, besteak beste.

Ekitaldiari Anjel Alkainek jarri zion umore punttua. Kanpainaren leloari aipamen eginez, aurkezpenera joan ziren legazpiarrei herdoila kentzen aritu zitzaien, irdumenezko herdoila, jakina.

Hauk dira datozen asteetan egongo diren ekintzak:

Irailaren 22tik urriaren 4ra: Topagunearen erakusketa, Kultur Etxean.

Urriaren 2an: Euskal blogosferaren inguruko mahaingurua, Kultur Etxean, 19:00etan. Luistxo Fernandez, Haritz Rodriguez eta Joxe Arantzabalek hartuko dute parte.

Urriaren 24an: Bertso saioa Bizkaiko txapelketetako txapeldunekin: Xabi Paia, Jon Enbeita, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gai-jartzailea Xabier Amuriza izango da. Latxartegin izango da 22:00etan.



ARG: ERRIKARTE AGIRRE

«UNA EMPRESA EXTERNA NOS ASESORARÁ EN EL ÁREA DE LA INSPECCIÓN DE TRIBUTOS»

Fernando Arakama Legazpiko udaleko kontu-hartzailea da; aurrekontuak egitea da bere eginkizunetako bat

Ayuntamiento de Legazpi, primer piso a la izquierda. Lo más probable es que quien entre en el primer despacho se encuentre a Fernando Arakama inmerso entre cuentas y más cuentas; no en vano, él es el interventor.

➔ ¿En qué consiste el trabajo de un interventor?

Digamos, que me ocupo sobre todo del área económica. Hacer los presupuestos, gestionarlos, contabilizar las partidas, ver qué dinero hay, asesorar en esa materia... Y por otra parte, la parte de ingresos es importante. El tema de las ordenanzas fiscales; cómo se regulan... Siempre estoy hablando en mi persona, pero somos un equipo.

➔ ¿También ejercéis de asesores?

Mi labor y la del secretario, en este caso es parecida. Siempre tenemos que decir si los acuerdos que se toman o los informes que se hagan están de acuerdo con la legalidad y si realmente las cosas se están haciendo de acuerdo con los criterios de eficiencia, eficacia, etc.

➔ Tu equipo es el que hace los presupuestos, ¿Cómo se hacen?

En realidad, como lo haría una familia normal. Es decir, qué ingresos creo que tengo, para saber qué es lo que me puedo gastar. Entonces, siempre tenemos que partir de los ingresos. Dentro de eso, hay una parte que es la parte más importante, que es lo que nos da la Diputación como participación en los impuestos generales: del IRPF, del



Fernando Arakama ARG: JOSU ALZELAI

IVA... Pero, después, quedan otro tipo de ingresos, que fundamentalmente son los impuestos y las tasas. Es ahí donde el ayuntamiento tiene mucho que decir. Puede poner las tasas altas, bajas, puede incrementar en el IPC o no... Paralelamente, en el presupuesto hay una serie de gastos consolidados. Los evaluo uno a uno y los plasmamos. A su vez, los departamentos van expresando lo que ellos quieren hacer con ese dinero que, entre comillas, sería de libre disposición. Con eso hay un listado de inversiones que el equipo de gobierno tiene que priorizar.

Los resultados del asesoramiento se notan a los cuatro o cinco años

➔ Se ha contratado a una empresa para gestionar los impuestos. ¿Cuál ha sido la razón?

Los impuestos se cobran en periodo voluntario, y si hay alguien que no quiere pagar, pues se le fuerza al contribuyente a que pague. Primero con recargos y si no, se le embargan las cuentas. Hay algunos tipos de impuestos que requieren una inspección posterior. Es decir, si el dinero que se ha declarado corresponde a lo que se ha hecho o no. Esa parte de la inspección requiere un trabajo mucho más especializado. Es por eso que hemos acudido a un asesoramiento externo, para que nos asesore en el área de inspección de tributos. Se trata de acudir a los grandes contribuyentes, como puedan ser los que tributen sobre el impuesto sobre obras, en los que la declaración del impuesto es más complicada.

➔ ¿En qué fase está la elección de la empresa?

Está adjudicada provisionalmente, y podemos decir que es Gesmunpal. El tipo de contratación lo permitía y ha sido por invitación a tres empresas. Hay algunos otros ayuntamientos que también trabajan con Gesmunpal y éste les presta el mismo servicio.

➔ ¿Cuándo se empezarán a ver los resultados?

Los resultados se empiezan a notar generalmente a los tres o cuatro años. En cualquier caso, no supone ningún peligro para nosotros puesto que cobran de acuerdo con lo que se recaude.

➔ ¿Cuándo se prevé empezar a trabajar en esto?

Este mismo final de año. Estamos terminando la contratación. Espero que para octubre o noviembre podamos empezar a trabajar con la empresa.

LEGAZPI BIZI

FRONTOIA ERROMERIARAKO PLAZA BIHURTUTA

Azkeneko bost urteetan galdu ezinezko zita bihurtu da Lakiolako erromeria. Aurten irailaren 14a zegoen horretarako gordea, baina egun hartan eguraldi txarra egin zuenez, Lakiolan beharrean, Legazpiko frontoian egin zuten erromeria.

Eguraldi txarra alde batera, espero bezala atera zen eguna, giro ederrean; legazpiarren umore on eta festarako grinaren erakusle. Bildutako dirua Zingi Zango Euskara Elkartarako izan zen. Herrian euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina handia jarri du abian elkarteak, eta gastu horiei aurre egiteko erabiliko dute erromeriako etekinen zati bat. Gainerakoa web gunearen mantenua bideratuko dute.

Euskara elkarteari bultzada emateaz gain, erromeri horren beste helburu bat ohitura zaharrak kalera ateratzea da, eta hala islatu zen egitarauan ere. Bertsolariek jarri zuten umorea, Elustondo anai-arrebek musika, eta legazpiarrek festarako gogoia. Horretaz gain, bazkari erraldoia eta koardilen arteko herri kirolak ere izan ziren.



ARG: GURUTZE AGIRRE

MERKATARIAK POZIK LEGAZPI STOCKEKIN



ARG: CREATIVOS GH ©

Eliz ataria denda erraldoi bilakatu zen irailaren 13an. ILINTI Legazpiko merkatarri elkarteak *Legazpi Stock* antolatu zuen udalaren laguntzaz. Merkatarri elkarteko 20 dendek euren produktuak kalera atera zituzten: arropak, oinetakoak, elektrizitate eta elektronika produktuak, liburuak, barruko arropa...

Aurten urte txarra izan da merkatarientzako eta horri aurre egiteko erabaki zuten *Legazpi Stock* eguna antolatzea. Eguraldia lagun ez izan arren, jende asko gerturatu zen azokara; eta ez legazpiarrek bakarrik. Izan ziren inguruko herrietako erosleak ere.

Lehendabiziko urtea da gisa horretako azoka antolatzen dena Legazpin, baina emaitzarekin gustora geratu direnez, litekeena da datorren urtean esperientzia errepikatzea.